

## **8. FUNTSEZKO JARDUERAK:**

Ondoko hauek dira funtsezko jarduerak: produkziozko jarduerak, arazo-konponketako jarduerak eta plataformako edo sareko jarduerak.

Produktzio jarduerekin hasteko esan beharra dago ez dugula zehaztuta, baina, gehienbat eskaintzaren kantitatearen arabera mugituko dira gure ekoizpena, hau da, eskatutako kantitateak fabrikatuko ditugu (nahiz eta badazepadako panpin kantitate minimo bat eduki arazoren bat edukiz gero erabiltzeko). Produktzioaren ezaugarriei dagokionez, aurretik esan bezala bi modelo edukiko ditugu, non, lehenengoa “basikoa” izango da eta ondoren beste modelo bat egongo da ezugarri gehiago eraldatzea uztiko dizuna. Hauen entregari dagokionez kanalak puntuan esandako moduan egingo dugu, hau da, hasiera batean enpresa baten bitartez egingo genituzke entregak (beste enpresa baten esku utziko genuke).

Arazoak konpontzeko jardueretan, gure proiektua egiterako garaien, garrantzi handia eman diogu gizartean dagoen “gorputz perfektuen estetikari”, hau da, gure produktuan kontzeptu hori puskatzen saiatzen gara, izan ere, panpina nahi duzun bezala eraldatu dezakezu, honek milaka gorputz mota sortzea uztiko du. Laburbilduz, gure produktuko panpinak ez dira izango gaur egungo “barbie” bezalako gorputz perfektuko figurak bezala, baizik eta kontzeptu hori alde batera utzi eta bakoitza den bezala panpinean ezartzea. Garrantzi handia ikusten baitugu gizarte mailan arazo hau konpontzea.

Sareko jarduerari ere garrantzi handia emango diogu webguneari, izan ere, bezeroetara iristeko baliabidea izango da, honi esker salmenta kantitate handiagoa egitea ahalbidetuko digu. Horretarako hurrengo puntuan (kostuen egitura) azaldutako gestio ezaugarriak aurrera eramango ditugu.